BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

3594

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 22koa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Honen bidez, erakunde publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko ekainaren 21eko bileran hartutako erabakien berri ematen da, zehazki, 2011ko ekitaldian gauzatu beharreko enplegu politika aktiboen programen aurrekontu-banaketaren eta programa horiek abian jartzearen inguruan hartutako erabakien berri.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2011ko otsailaren 14an eratu zenetik, bere esku utzitako funtzioak betetzeko, hainbat erabaki hartu ditu ekitaldi honetan gauzatuko diren enplegu-politika aktiboen programei edo zerbitzuei buruz, eta, hala badagokio, dagozkion deialdiak onartuko ditu.

Otsailaren 18ko 3/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez, enplegu-politika aktiboen erreforma sakona egin da, abenduaren 16ko 56/2003 Legea, Enpleguari buruzkoa, aldatuz. Hori aurrerapen handia da autonomia-erkidegoek haien lurraldeko berariazko premiak hobeto doitzeko behar dituzten enplegu-neurriak diseinatzeko eta gauzatzeko duten autonomian, eta aldi berean, ekitaldi honetara arte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak gure autonomia-erkidegoan kudeatzen zituen laguntza-programak arautzen zituzten araudiak indargabetzea ekarri du. Hala ere, indargabetze horrek ez du eraginik izango Enplegu Estrategia Espainola eta Enplegu Politikari buruzko Urteko Plana, ekitaldi honen amaiera arte aurreikusi ez dena, onartu arte.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zerbitzuak emateko eredu berri baterako iragaite bat izango den 2011. urte honetan, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2011ko ekainaren 21eko bileran, 2011ko otsailaren 17ko bileran hartutako erabakien ildo berean, batik bat Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan integratu diren erakundeek lehenago kudeatu dituzten programei eustea eta horiek finantzatzea, iragankortasun-izaera horrekin berarekin, komeni dela ikusi du; izan ere, programa horiek garrantzi berezia duten jardunak eta zerbitzuak, edo ezin atzeratu direnak, hartzen dituzte kontuan. Horien artean daude, besteak beste, enplegu autonomoa sustatzeko programa, laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzekoa, edo langabeak edota bazterkeria-arriskuan daudenak laneratzeko prestakuntza-ekintzen eskaintza finantzatzekoa.

Abian jarriko diren programetako batzuk indarraldi mugagabea duten araudietan oinarritzen dira, eta urte osoan egon ohi da irekita eskaerak aurkezteko epea. Programa horiek publiko egin behar izaten dira, onuradun izan daitezkeenei horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoen berri emateko, eta baliabide horiek izango dira emango diren laguntzen muga.

Halaber, kontuan izanda programa horiek arautzen dituzten araudietan aurreikusitakoak ez diren entitate batek gauzatuko dituela programa horiek, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, balizko interesdunei hori aldaketa bat dela jakinarazi behar zaie, laguntzen kudeaketari dagokionez (eskaerak aurkezteko lekua, organo kudeatzailea, ebazpena emateko organo eskuduna...), eta diru-laguntzen erregimenari dagokionez, Lanbide Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionalaren zati den zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat izateagatik.

Hori dela-eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hauxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Ezagutzera ematea Lanbideren Administrazio Kontseiluak hau erabaki duela 2011ko ekainaren 21ean egindako bileran, gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez: «Aurrekontu-banaketa eta 2011ko ekitaldian gauzatu beharreko enplegu-politika aktiboen programen abian jartzea»:

- Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen deialdia onartzea, eranskinean aurreikusitako baldintzen arabera.

Araudia: 2009ko maiatzaren 4ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

Zenbatekoa: 9.872.252 euro.

- Enplegu autonomoa sustatzeko programa finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, baldintza hauen arabera:

Araudia: Ekainaren 5eko TAS/1622/2007 Agindua, enplegu autonomoa sustatzeko programarako diru-laguntzak ematea arautzeko dena (2007ko ekainaren 7ko EHAA).

Finantzaketarako diru-laguntza emateko prozedura: zuzenean interesdunari eman eta ordainduko zaio, eta hark diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik hiru hileko epean egiaztatu beharko du maileguaren zati nagusia amortizatzeko izan dela.

Zenbatekoa: 12.850.000 euro.

- Enpresa-ekimenak sustatzeko prestakuntzarako eta aholkularitzarako diru-laguntzen programa finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, baldintza hauen arabera:

Araudia: abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena. III. kapitulua (2003ko abenduaren 31ko EHAA).

Zenbatekoa: 850.000 euro.

Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa: programa honen babespean diruz lagundutako jardunak Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013 EGF Programa Operatiboaren esparruan.

- Tokiko enplegu- eta garapen-agenteak (luzapenak) sustatzeko programa finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, baldintza hauen arabera:

Araudia: 1999ko uztailaren 15eko Agindua, tokian tokiko garapena eta B+E gisa kalifikatutako proiektu eta enpresak sustatzeko diru-laguntza publikoak emateko oinarriak ezartzeko dena. II. titulua. 14. artikulua (luzapenak) (1999ko uztailaren 31ko EHAA).

Zenbatekoa: 1.676.824 euro.

Aplikazio-esparrua: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak araudi horren II. tituluaren babespean emandako diru-laguntzen luzapenak eskatzea.

- Laneratzeko prestakuntza-zerbitzuetarako laguntzen programa finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, baldintza hauen arabera:

Araudia: Abenduaren 23ko 327/2003 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, lan-aukerak hobetzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzeko dena. II. kapitulua (2003ko abenduaren 31ko EHAA).

Zenbatekoa: 7.000.000 euro.

Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa: Programa honen babespean diruz lagundutako prestakuntza-ekintzak, ezgaitasuna duten pertsonentzat direnak, Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013 EGF Programa Operatiboaren esparruan.

- Lehentasunez langile langabetuentzako lan-eskaintzarako prestakuntzarako 2011ko ekitaldiko laguntza-deialdiaren babespean (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2011ko otsailaren 17ko bileran onartu zuen deialdi hori) diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen lanekoak ez diren jardunbideetarako, etxeko eta laneko zereginak onez bateratzeko, garraiorako, mantenurako eta ostaturako laguntzak, eta bekak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, baldintza hauen arabera:

Araudia: martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua, enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema arautzen duena (2007ko apirilaren 11ko EHAA), eta martxoaren 7ko TAS/718/2008 Agindua, 395/2007 Errege Dekretua garatzeko dena. III. kapitulua (2008ko martxoaren 18ko EHAA).

Zenbatekoa: 2.300.000 euro.

- Lan-merkatuan bitartekaritza-ekintzak garatzeko indarrean diren lankidetza-hitzarmenak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, baldintza hauen arabera:

Araudia: Abenduaren 23ko 326/2003 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, Euskal Lan Zerbitzua/Langai izenpean enplegatze-agentzia gisa jarduteko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak lan-merkatuan sustatzen dituen bitartekaritza-ekintzen antolamendua eta garapena arautzeko dena (2003ko abenduaren 31ko EHAA), eta 2009ko martxoaren 11ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuan araututako diru-laguntzen zenbatekoak eguneratzeko dena (2009ko martxoaren 31ko EHAA).

Zenbatekoa: 358.000 euro.

Bigarrena.- Alderdi hauen berri ematea, 2011ko ekainaren 21eko bileran Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakien bidez baliabide ekonomikoen xede izan diren eta deialdia egitearen mendeko ez diren laguntza-programei dagokienez.

- 2011ko ekitaldian emango diren laguntzen guztizko bolumenak ez ditu gainditu esleitutako zenbatekoak, edo horiek eguneratzearen ondoriozkoak izango direnak, horien aldaketak onartuz gero. Aldaketa horiek eginez gero, aldaketa horiek publiko egingo dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

- Eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Zentraletan eta Lanbideko enpleguko lurralde-bulegoetan aurkeztuko dira. Horretaz gain, eskaerak azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkez daitezke.

- Laguntzetako bakoitzaren eskaera-orriak eta ebazteko organo eskudunaren, ebazteko epearen, isiltasunaren esanahiaren, onuradunen betebeharren eta aplikatu beharreko diruz laguntzeko araubideko gainerako alderdien inguruko informazioa interesdunen eskura egongo dira Lanbideren enpleguko lurralde-bulegoetan eta www.lanbide.net webgunean.

Hirugarrena.- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2011ko ekainaren 21eko bileran onartutako deialdia, laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak finantzatzeko dena, bereiz argitaratuko da EHAAn.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 107. artikulua eta ondorengoak aplikatuz, honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.

Zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.